


LARRUAZALPEKO HEPARINAREN ADMINISTRAZIOA



1


Ekintza egin behar duen pertsonak, lehenik eskuak garbitu behar ditu.

✗ Okerra
✓ Zuzena




2

Zitada-lekua aukeratu zauriak, orinak eta orbainak ziztatu gabe.




3

Ura eta xaboiarekin garbitu eta eremua alkoholez edo klorhexidinaz desinfektatu.




4

Aurrekargatutako xiringa prestatu.



5


Larruazaleko tolestura (atximurka) hartu eta tinko mantendu.



6

Azala
Larruazalpeko eremua
Muskulu-ehuna

Orratza guztiz sartu bertikalki eta edukia astiro injektatu tolestura askatu gabe.



7

✗ Okerra .

Ez igurtzi ingurua, hematoma saihesteko.



8

Orratza babestu ziztadak saihesteko.

ALARMA ZEINU ETA SINTOMAK

Gorputz-adarren batean: Hantura, Mina, Gorritasuna, Berotasuna.

NON ADMINISTRATZEN DA?

Larruazalpean injektatzen da (larruazalaren tolestura baten bidez, normalean sabelaldean).

NOIZ ADMINISTRATZEN DA?

Ez dago egokiagoa den eguneko ordurik heparina administratzeko, baina garrantzitsua dena egunero ordu berean administratzea da.

KONTUTAN IZATEKO

Heparina administratu ondoren, litekeena da hematoma agertzea, medikazio motaren ondorioz.

